

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Aldatzea zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza, igerileku tarifa. Behin betiko onespena

Udalbatzak, 2018ko ekainaren 21eko osoko bilkuran, hasierako onspena eman zion zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik, igerileku tarifa, kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari (ALHAO, 77. zk., 2018ko uztailaren 4a). Aldaketa horri hasierako onspena eman zion erabakia jendaurrean egon zen bitartean, haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, hasierako erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, Arabako lurralde historikoko toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan eta Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorri (azken hori lotuta dagoela uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 50. artikuluari).

Goian aipatutako 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betez, behin betiko erabakia osorik ematen da argitara, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko da.

Erabakiaren testu osoa:

4. IGERILEKUENTASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDAKETA

Ezarritako izapidea egin ondoren, Idazkaritzak 2018ko ekainaren 18an egindako txostena ikusi da, zeinak jasotzen baitu zerbitzuen kostuaren azterlan tekniko eta ekonomikoa, Toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Lehen aipatutako lege arauetan jasoriko beharrezko baldintzak betetzen dira, eta tasa arautzen duen zerga ordenantza finkatutako tarifak eta kuotak egokitu egiten dira toki esku-meneko zerbitzu publikoak emateak eragindako kostu aurreikusiei.

Horiek horrela:

Zioen azalpena: Udalak, ekitaldi honetako igerileku bonua egitean, egiaztatu du ezintasun iraunkor absolutua duten pertsonentzako tarifa oso zurruna dela. Kontzeptu hori gizarte segurantzaren prestazioei dagokie eta udalerrian kasu bati baino ez dagokio.

Horiek horrela, egoki jotzen da % 45 elbarritasuna kontua hartzea, ohikoagoa baita eta "ezintasun iraunkor absolutu" kontzeptu lausoagoa erabili behar izatea saihesten baitu

Beraz, aho batez ERABAKITZEN DA:

LEHENENGOA. Hasierako onspena ematea zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren igerilekuei buruzko B epigrafearen d) azpiepigrafea aldatzeari.

- Ezintasun iraunkor absolutua duten elbarriek aurrerantzean izen hau hartuko dute:
- Ehuneko 45eko minusbaliotasuna edo handiagoa duten erabiltzaileak.

Aipatutako d) azpiepigraferako egun onetsitako tarifei eusten zaie

BIGARRENA. Espedientea izapidetzea eta hari nahitaezko publizitatea ematea, ALHAOn argitaratuz eta jendaurrean jarriz udalaren iragarki oholean, hogeita hamar egun baliodunez, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten.

Interesdunen eskura egongo da, halaber, udal honen egoitza elektronikoan (<http://www.lapuebladelabarca.eus>).

HIRUGARRENA. Baldin eta espedienteari arestian adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikotzat jotzea, Tokiko ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3. artikuluan xedatutakoa oinarri. Aldaketa hori behin betiko onespena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Lapuebla de Labarca, 2018ko irailaren 10a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO